

... sois viento de libertad.

Egunsetiko kanpai hotsak
goibeldu gintuen
altzairuaren suak
ortzean genekusan irria itzaltzean.
Baina ... ikusiko dek
lur hartan
gure malkoak xukatu zituen lur hartan
zerraldo erori hintzenezan bere besoetan jaso hintuen lur hartan
loratuko dela
erraietatik datorren sustraia.

...ikusiko dek

haziko dela, lurretik askatasunaren haize garaietara
ortzean tinko dirauen ukabil sendo gisa;
bera inguruan dantzatuko du haizeak
bere inguruan borobilduko du
askatasunaren irudi irristakorra,
eta haizea
dantza isilean
mila kurba, hertz kiribil,
eta txoko ilunetan galduko da.

...ikusiko dek

haizea limurkerietan sakontasun izkutuenetan
bateginik
haizea eta enborra,
haizea zainetan behera, irristakor gora behera
enborra lurretik gora, labainkor
bateginik
kantu isilean bihurtuz,
plazer karraisi mutu batez
ardaska bat sortuko den arte.

...ikusiko dek

hire ezpainetako haizeaz
hire eskuek ereindako lurraz
sorturiko ardaska
itsaso zabalean pausatuko dela,
heriotzari uko egiten dion bihotz handi bat
katerik gabe
soilik haizearenganako obedientzia onartuz.
Hitz hauek arrano bihurtu nahi nizkiake,
hire hortzetan loraturiko
askatasun haizean hegalak pausatuz
bide ilunak zeharkatzeko
eta

hire irriaren pozaz

hire odolaren suaz

ortzean marraturiko urratsa
gau ilunetan gure izar bihur dadin.



AITOR SARASOLA